

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

**MAITASUNAREN AURPEGIAK EUSKAL HAUR ETA GAZTE
LITERATURAN**

Egilea: Lorea Etxebarrieta Urkijo

Zuzendaria: Iratxe Esparza Martin

Leioan, 2022ko Ekainaren 5ean

Maitasun erromantikoa gizartean gehien hedatua dagoen maitasun eredu da; hala ere, honek indartzen dituen mito eta ezaugarri anitzak oso kaltegarriak dira, batez ere, identitate pertsonalaren garapenean dauden pertsonentzat. Fenomeno hau indartzen duen erreminta nagusietako bat Haur eta Gazte Literatura da. Hortaz, lan honen helburuak dira, batetik, euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean dauden hainbat narrazioetan maitasun erromantikoa nola jorratzen den aztertzea eta, bestetik, maitasun eredu ezberdinak eskaintzen dituzten lan literarioak proposatzea. Liburuen azterketa narratologikoa egin ostean, urteak pasa ahala, maitasunaren gaiari dagokionez, Haur eta Gazte Literaturak aldaketak jasan dituela ondorioztatu da.

Haur eta Gazte Literatura, maitasun erromantikoa, narrazioak, maitasuna, identitatea

El amor romántico es el modelo de amor más extendido en la sociedad; sin embargo, los múltiples mitos y características que éste refuerza son, sobre todo, muy perjudiciales para las personas en desarrollo de identidad personal. Una de las principales herramientas que potencia este fenómeno es la Literatura Infantil y Juvenil. Por lo tanto, los objetivos de este trabajo son, por un lado, analizar cómo se aborda el amor romántico en diferentes narraciones que forman parte de la Literatura Infantil y Juvenil vasca y, por otro, proponer obras literarias que ofrecen diferentes modelos de amor. Tras el análisis narratológico de los libros, se ha concluido que con el paso de los años, la Literatura Infantil y Juvenil ha sufrido cambios en cuanto al tema del amor.

Literatura Infantil y Juvenil, amor romántico, narraciones, amor, identidad

Romantic love is the most widespread model of love in society; however, the multiple myths and characteristics that it reinforces are, above all, harmful to people in the process of developing their personal identity. One of the main tools that enhance this phenomenon is Children's and Young People's Literature. Therefore, the aims of this work are, on the one hand, to analyse how romantic love is dealt with in different narratives that form part of Basque Children's and Young People's literature and, on the other hand, to propose literary works that offer different models of love. After the narratological analysis of the books, it has been concluded that, over the years, Children's and Young People's Literature has undergone changes in terms of the theme of love.

Children's and Young People's Literature, romantic love, narratives, love, identity

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	3
1.1. Haur eta Gazte Literatura	3
1.2. Maitasun erromantikoa.....	4
2. Metodologia.....	9
3. Lanaren garapena.....	10
3.1. Maitasun erromantikoa lantzen duten liburuen azterketa	10
3.1.1. <i>Lehenengo amodioa Suedian</i> (1997)	10
3.1.2. <i>Eta ni zer?</i> (2003)	11
3.1.3. <i>Oporren zirrara</i> (2003).....	12
3.1.4. <i>Jara, bikiak eta bikoteak</i> (2005)	13
3.1.5. <i>Bihotz ausarta</i> (2006)	14
3.1.6. <i>Udalekua, hura lekua!</i> (2006).....	15
3.1.7. <i>Atearen atzean</i> (2007).....	16
3.1.8. <i>Ez gara elkarrekin zahartuko</i> (2008).....	17
3.1.9. <i>Ritak nobioa du</i> (2010)	18
3.1.10. <i>Ezekiel nora ezean</i> (2012).....	19
3.2. Bestelako maitasun harremanak lantzen dituzten liburuen azterketa.....	20
3.2.1. <i>Hiru istripu eta bi amodio</i> (2013).....	20
3.2.2. <i>Maitasun sua</i> (2013)	21
3.2.3. <i>Maren</i> (2017)	22
3.2.4. <i>Sekretuen hamaika zapoak</i> (2018).....	23
3.2.5. <i>Eiderren egunerokoa</i> (2019).....	24
4. Ondorioak	24
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	26
5.1. Erreferentzia teorikoak.....	26
5.2. Erreferentzia literarioak.....	30

Sarrera

Maitasuna ulertzeko modu ezberdinak badaude ere, gaur egungo gizartean gehien hedatua dagoen maitasun eredu maitasun erromantikoa da, sexuaren arabera pertsona bakoitzak familia-eremuan izan behar dituen rola definitzen dituen ideia. Hori dela eta, jarrera sexisten erabilera eginez, maitasun mota honek bikote-harreman ideala sortu eta barreiatzen duela esan daiteke (Marroquí eta Cevera, 2014). Haur eta gazteentzat zuzenduta dagoen literaturaren barnean kokatzen diren eta maitasunaren gaia jorratzen duten lan literario ugari aipatutako eredu aurkezten dute, identitatea garatzeko funtsezko denboraldian dauden pertsonengan inpaktu handia duen tresna izanik.

Azken urteotan, maitasun eredu ezberdinei ikusgarritasun handiagoa ematen hasi bazaie ere, Lehen Hezkuntzako geletan dauden maitasun narrazio gehienek arlo honen ikuspegi bera eskaintzen jarraitzen dute. Horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honek Haur eta Gazte Literaturan maitasunaren arloa maitasun erromantikoaren ikuspegitik lantzen duten hainbat libururen azterketa egitea du lehenengo xedetzat. Horrez gainera, bigarren helburu nagusia, ikastetxeetako bigarren zikloko irakasleentzat baliagarria izango delakoan, beste maitasun eredu batzuk aurkezten dituzten lan literarioak proposatzea da.

Egoera hau oinarri izanik, lehenik eta behin, Haur eta Gazte Literaturaren ezaugarriak eta honek duen ideiak transmititzeko ahalmena aipatuko da, maitasun erromantikoaren eta honek nerabeengan izan ditzakeen efektuekin batera. Ondoren, hedatuen dagoen maitasun eredu jorratzen duten hamar libururen azterketa narratologikoa egingo da, maitasun erromantikoaren ezaugarriak eta mitoak kontuan izanik. Honen ostean, beste maitasun mota batzuk agerian uzten dituzten bost liburu proposatuko dira. Amaitzeko, ondorioak aurkeztuko dira, Haur eta Gazte Literaturak azken boladan gai honi dagokionez jasan dituen aldaketak adieraziz.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Haur eta Gazte Literatura

Haur eta Gazte Literatura (HGL) laurogeigarren hamarkadan sortutako terminoa da; hortaz, kontzeptu nahiko berri baten aurrean gaudela esan dezakegu. Hala ere, esan beharra dago, data honen aurretik hainbat liburu ere zeudela, gehienek kutsu erlijioso eta hezitzailea zutenak; beste gutxi batzuen artean, Minaberriren edo N. Etxanizen poemak eta Etxepareren

Mendekoste gereziak (1963). Horrez gain, garrantzitsua da aipatzea, Euskal Herrian bereziki, ahozko transmisioak garrantzi handia izan duela beti (Igerabide, 2001).

Horrenbestez, eta ikuspuntu komertzialak zabaldu duen literatura mota honen aurrean duen ikuspegia dela kausa, adin tarte zehatz batentzat argitaratzen diren liburuen bilduma bezala definitzen duena, oso zaila da Haur eta Gazte Literaturaren definizio zehatz bat ematea. Hala ere, badira, haien ikuspuntua kontuan hartuz, bi talde ezberdinetan sailka daitezkeen hainbat euskal idazle literaturaren aurrean haien ikuspuntua eman dutenak. Izan ere, badira idazle batzuk (Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide eta Joxemari Iturralde), literaturak adinik ez duela sinesten dutenak; beste batzuk aldiz (Felipe Juaresti eta Manu Lopez Gaseni), ez dute zerikusirik ikusten helduei eta gazteei zuzenduta dagoen literaturaren artean (Etxaniz, 1997). Alabaina, definizio guztietan bi kontzeptu nagusi errepikatu egiten dira; hain zuzen ere, “literaturtasunaren defentsa eta idazlanaren kalitatea” (Etxaniz, 1997, 11 or.)

Euskal idazleek aipatzen dituzten ezaugarri ezberdinez gain, nabarmentzekoa da Haur eta Gazte Literaturak hizkuntzaren erabileraren eta hitzen indarraren bidez kutsu ideologikoa transmititzeko duen ahalmena (Etxaniz, 2007). Hortaz, aipatzekoa da, literatura mota honek haurren garatze prozesuan uste baino askoz eragin handiagoa daukala. Alde batetik, haur eta gazteentzat bideratuta dauden ipuinek eta eleberriek umeek ezagutza-eskemak eraiki ditzaten ahalbidetzen dute. Hortaz, kultura-transmisio tresna bat dela esan dezakegu; izan ere, haien izaera garatzeko eta haien jarrerak dituen ondorioak ulertzeko tresna baliagarria da. Beste alde batetik, HGL gizarteko arauen eta baloreen transmisio iturrizat har daiteke, gizarteak egokitzen eta desagokitzen hartzen dituen jarrerak helarazi egiten ditu eta (Ros, 2013). Hori dela eta, garrantzi handikoa da haurrek eta gazteek gehien irakurtzen dituzten liburuen mezu ezkutua aztertzea.

1.2. Maitasun erromantikoa

Maitasun eleberriak bereziki, nerabeek gehien gustuko duten eleberri generoen artean kokatzen dira, batez ere, nesken kasuan (Pérez et al., 2018). Hala ere, literaturak, bikote heterosexualaren irudiarekin, maitasun erromantikoaren mitoak defendatzen ditu eta hortaz, gizonaren eta emakumearen arteko bikote eredutik aldentzen diren aukera ezberdinak alde batera uzten ditu. Hau da, eleberri hauek eskaintzen duten maitasun eredua, maitasun erromantikoa deritzon motara mugatzen da, gaur egun ezagutzen diren maitasun eredu anitzak baztertuz. Modu honetan, literaturak nerabeek maitasunaren aurrean nola jokatu eta bere nahien aurrean zer sentitu behar duten adierazten du (Frasquier et al., 2019).

Maitasun erromantikoaren mitoei deritzegunean, aipatu beharra dago, mitoak anitzak badira ere, badirela bai gizartean, bai literaturaren arloan hedatuagoak dauden hainbat uste eta hortaz, ondorio kaltegarriak dakartzaten zenbait mito nagusi. Lehenik eta behin, *laranja erdiaren* mitoak pasioa beste edozein maitasun-modalitate posibleren aurrean gailentzen dela adierazten du (Esteban, 2011). Horrez gain, lehenengo mito honek pertsona bakoitzarentzat banako bakarra dagoela berretsi egiten du, hauen arteko erlazioa heterosexuala bakarrik izan daitekeela barreiatuz (Martínez et al., 2019).

Jelosiaren mitoa edo jeloskor egotea maiteminduta egotearen froga bat izatearen sinesmena, jarrera bortitzak edo zapaltzaileak arrazoitzeko erabiltzen da. Gainera, jelosia maitasuna benetakoa dela egiaztatzeko modu bezala ikusten da, genero indarkeria sustatzen eta arrazoitzen duena, maitasunak “dena ahal duelako”. Bestalde, *esklusibotasunaren mitoa* pertsona batekin baino gehiagorekin maiteminduta egotearen ideia desegiten du, momentuan pertsona bakarrentzako maitasuna izan dezakegula esanez. Baieztapen honek hedatuagoa dagoen harreman monogamoen arauekin talka egiten du, bikotean bai barne-gatazkak, bai harreman-gatazkak ekarriz (Bisquert et al., 2019).

Ezkontzaren mitoa, batez ere instituzio erlijiosoak indartua, maitasun erromantikopasionalak bikotearen batasun egonkorra ekarri behar duela eta bikotearen elkarbizitzaren oinarri bakarra izan behar dela dioen ustea da. Horrez gain, mito honek bateraezinak diren bi elementuren artean erlazio bat ezartzen du; bata, ezkontza, iraunkorra dena, eta bestea, pasioa, egoera emozional iragankorra dena. Hortaz, egoera hau kudeatzea zaila bihurtzen da, pertsonak etsipenera erraz eraman ditzake eta (Ferrer et al., 2010).

Azkenik, *baliokidetasunaren mitoa* maitasuna (sentimendua) eta maitemintzea (iraunkorra den egoera) baliokideak izatearen ustea bezala ere ezagutzen da. Mito honek pertsona batek bere bikotearekin grinatsuki maiteminduta egoteari uzten badio, bikotekidea maite ez duela eta hortaz, harremana bertan behera uztea aukera hoberena dela barreiatu egiten du (Ferrer et al., 2010). Hortaz, azkenengo mito honek pasioaren gutxitzea maitasunaren amaiera gisa ulertuko luke; izan ere, pasioaren iraunkortasuna, maiteminduta egotearen erakusgarri ulertzen da (Ruiz, 2016).

Maitasun erromantikoaren mitoak anitzak badira ere, badira kaltegarriak diren maitasun eredu honen beste hainbat ezaugarri. Aipatutako maitasun eredu emozional eta hegemoniko honek maitasuna hainbeste giza alderdien aurretik jartzeaz gain, maitasun-grina gainerako

alderdien aurrean nabarmendu egiten du. Modu honetan, maitasunaren bidez norbanakoaren zorientasuna bilatzen da, bikote heterosexual baten maitasuna ez izatekotan, zoritxarrekoa izatera bideratzen zaituena. Horrez gain, Mendebaldeko gizarteek ulertzen duten maitasun erak, bai literaturaren bidez, bai ikus-entzunezko baliabideen bidez, gizonaren eta emakumearen irudi zehatz bat sortzen du, gizarteak haren komenentziarako osatutako bi generoak (maskulinoa eta femeninoa) aurkako eta osagarri gisa irudikatuz (Esteban, 2011). Beraz, aipatutako bitartekoen bidez, gizarteak hedatzen dituen genero rola oinarritzat hartuz, gizonek eta emakumeek maitasun erromantikoaren aurrean izan behar duten irudizko jokabidea hedatzen da (Carbonell et al., 2019).

Alde batetik, emakumea ezaugarri zehatz batzuekin agertzen da, hain zuzen ere, “gozoa, samurra, kotilla, maltzurra eta arazo unibertsalez interesa aurkezteko gai ez den pertsona gisa” (Colás eta Villaciervos, 2007, 37 or.). Horrez gain, eremu pribatuan geratzen den eta ugaltzeko zeregin bakarra duen pertsona moduan irudikatzen da; honen autoestimua iturria esparru pribatuan jatorria izatera mugatuz. Beraz, jasotzen duen estimulu falta eta gehiegizko babesa dela eta, honen askatasunak, talentuak eta gogoak zapaldu egiten dira (Ferrer eta Bosch, 2013). Modu berean, edertasuna kultura patriarkalak genero femeninoari ezartzen dizkion ezaugarri nagusien artean kokatzen da, besteen ongizatearen zaintzaile eta arduradun gisa duen erantzukizunarekin batera (Colás eta Villaciervos, 2007). Hortaz, emakume gazteak maitasunean eta mendekotasunean hezten direla esan dezakegu, gizon batekin duten maitasun-harremana mantentzeko arduradun direla transmitituz. Gainera, bikote-harremana zorientasuna eta biziraupena lortzeko oinarrizko ezaugarri bezala aurkezten zaie (Ferrer eta Bosch, 2013).

Bestalde, genero maskulinoari, aipatutako emakumeari esleitzen zaizkion ezaugarriak ez izatearekin erlazionatzen zaio. Beraz, emakumeak ez bezala, “arrakastatsuak, lehiakorak, eta hornitzaile izateko eta besteenganako mirespena lortzeko gai izan daitezen espero da” (Colás eta Villaciervos, 2007, 37 or.). Erresistentzia eta autosufizientzia maskulinitateari lotuta ere badaude, indarra eta arriskua dakartzaten gatazkak konpontzea gizonen ardurapean geratzen baita (Colás eta Villaciervos, 2007). Halaber, gizonak esparru publikoan gara daitezen, eta hortaz, independentzia eta testuinguru makrozozialean erlazionatzeko abilezia aurkeztu dezaten espero da (Ferrer eta Bosch, 2013). Hori dela eta, boterea pribilegio sinbolikoa den testuinguru baten laguntzarekin, gizonek emakumeekin dituzten harreman

afektiboei deritzegunean, beste esparru batzuetan gertatzen den era berean, botere intrapertsonal nabariagoa dute (Verdú, 2013).

Adierazitako maitasun erromantikoaren ezaugarri hauek bi generoen arteko ezberdintasunak bermatzen dituzte. Horrez gainera, bikote perfektua erlazio heterosexual eta hegemonikoaren irudipean aurkeztu dadin, LGTBI+ kolektiboaren presentzia ostendu egiten da, LGTBI+ gisa identifikatzen diren pertsonak alde batera utziz (Frasquier et al., 2019). Bazterkeria honen transmisioak nerabezaroan izan ditzakeen ondorioak aipagarriak dira, nerabezaroa bereziki, pertsonen identitatea garatzeko funtsezko denboraldia baita. Hortaz, garapen prozesu honetan edozein motatako bazterkeria edota besteengandik errefusa jasotzeak ondorio negatiboak ekar ditzake norbanako maila psikosozialean (Martínez et al., 2019).

Izan ere, nerabezaroa 10 eta 19 urte bitartean ematen den, haurtzaroaren ondoren eta helduaroaren aurretik gertatzen den hazkunde-aldia da. Etapa honek balio eta aberastasun berezia duen adin tartea bezala definitzen du United Nations International Children's Emergency Fundek [UNICEFek] (2020), ikasteko eta indarguneak garatzeko aukera paregabeak eskaintzen baititu. Gainera, gizabanakoak haurtzaroan jasotako balioak probatu behar ditu, aurretiaz aurkeztu zaion sistema hierarkikoaren egitura osoa zalantzan jartzen duten errealitate berriak aurkezten baitzaizkio. Aipatutako proba hau norbanakoak aurka egin behar duen errealitateari buruzko etengabeko esperimentazio gisa azaltzen da, bere bizitzako hurrengo urteetarako mundua ulertzeko modua era esanguratsuan markatuko duena (Zacarés et al., 2009).

Identitate pertsonalaren garapenak, bereziki, nerabezaroan punturik gorena lortzen du (Tesouro et al., 2013); modu berean, orientazio sexualaren autokontzientzia 9 eta 10 urte bitartean ematen da, nerabzaroko etaparen hasi-hasieratik (Corona eta Funes, 2015). Aurretiaz ikusi dugun literaturak eta ikus-entzunezko baliabideek barreiatzen duten maitasun eredu dela eta, heterosexualak ez diren nerabeek egokitzapen-aldi zaila izan dezakete, gerora portaera desagoki gisa azaldu daitekeena. Aipatzekoa da, haien sexu-joerarekiko jarrera negatiboagoa duten nerabeek haien gizarte-harremanei antsietatez aurre egiteko parada handiagoa dutela, ebaluazio negatiboaren aurrean beldur gehiago aurkeztuz (Espada et al., 2012).

Adin tarte honetan, aurretiaz adierazi den maitasun ereduaren hedapena dela eta, bikote harremanak heterosexualak dira nagusi. Izan ere, maitasun erromantikoaren ideiak nesken eta mutilen arteko harremana amodioarekin erlazionatzen du, nerabeek genero berdineko bi

pertsonaren arteko maitasun adierazpenak lagun minak izatearen erakusgarri bezala ulertzea suposatzen duena. Hala ere, alde aurretik aipatutako maitasun erromantikoak indartzen dituen genero estereotipoak direla kausa, nesken arteko eta mutilen arteko maitasun adierazpenak ez dira modu berean ulertzen (Fernandez, 2016).

Alde batetik, genero femeninoari esleitzen zaion izaera afektiboa dela eta, gazteek bi neskek elkarri dioten maitasuna adierazi dezaten onartu egiten dute. Izan ere, nesken arteko adierazpen hauek ez dira harreman lesbikotzat hartzen, lesbianismoa ez baita nerabeen aukeren artean azaltzen. Mutilen arteko maitasun adierazpenak ostera, joera homosexualtzat hartzen dituzte, genero maskulinoa maitasunarekin lotutako sentimenduak erakustearekin lotzen ez baita. Honek hauen orientazio sexuala zalantzan jarri ez ezik, haien genero identitatea zalantzan jarri dadin eragiten du (Fernandez, 2016).

Hori dela eta, nerabeek momentuan dituzten edo etorkizunean izan nahi dituzten harreman afektiboak erlazio heterosexual moduan irudikatzen dituzte. Hala ere, nabarmentzekoa da, harreman ez-heterosexualak aipatzen dituztenean, esperientziak hirugarren pertsonan kontatzen dituztela, norberak bere burua homosexualitatetik urrun kokatuz (Fernandez, 2016). Honek maitasun erromantikoaren hedapenak identitatea garatzeko funtsezko adin tarte honetan izan duen inpaktua erakusten du, harreman homosexualak norberaren esperientziatik urrun kokatzen baitira.

LGTBI+ kolektiboa modu honetan ezkutatzek arazo larriak dakartza gizarteak ezartzen dituen ezaugarriekin bat egiten ez duten pertsonentzat. Izan ere, bullying homofobikoa, hau da, LGTBI+ arrazoiengandik ikasle batek behin eta berriro pairatu behar dituen jarrera bortitzak (Platero, 2007), mundu mailako eskola gehienetan ematen den arazo bat da. Izan ere, European Union Agency for Fundamental Rights-ek 2014an argitaratutako ikerketa lanean adierazten den legez, Espainiako Estatuan elkarrizketatuak izan diren ikasleen %91k, LGTBI+ kolektiboaren barnean identifikatzen ziren ikasleenganako iruzkin eta jokabide negatiboak entzun izan dituela aitortzen du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2015ean argitaratutako EAEko errealitatera hurbiltzen den ikerlan batek %55'3k LGTB pertsonenganako bullying-a edo isekak ikusi edo entzun dituela ondorioztatzen du. Horrez gainera, inkestatuak izan diren gazteen %23'5ak noizbait kolektibo honetako gazteenganako mehatxuak ikusi edo entzun dituela aitortzen du.

Azkenik, ikerketa lanean parte hartu duten %15'3k LGTB pertsonen aurkako eraso fisikoak antzeman dituztela adierazten du.

Horrez gain, aipatzekoa da eskola-testuinguruan LGTBI+ kolektiboaren barne dauden pertsona askok pairatzen duten bullying homofobikoak, depresioa, antsietatea, trauma osteko estresaren sintomak, eta bere buruaz beste egin dezaten eragin dezakeela (Martxueta eta Etxeberria, 2014). Izan ere, EAEn badira arrazoi homofobiko eta transfobikoengatik bere buruaz beste egin duten hainbat nerabe; beste batzuen artean, Katalin Milnerrek “*Moio. Gordetzea ezinezkoa zen*” 2019. urtean argitaratutako liburuaren protagonista transexual hernaniarra, Aimar Elozegi Ansa.

Honek guztiak hezkuntza sentimentalari buruz hausnartzera garamatza, batez ere, gazteek maitasunaren inguruan jasotzen dituzten mezuak aztertzeraz. Alde batetik, arduraz pentsatu eta identifikatu beharko lirateke literaturak mezuen bidez zabaltzen ari diren maitasun-ideologiaren ezaugarriak. Bestalde, aipatutako mezu guztiak maneiatzeak suposatzen duen zailtasuna dela eta, hezkuntza sistemak egoera honen aurrean erantzukizuna har dezan ezinbestekoa da. Bereziki, gazteak genero-desberdintasunetik lekurik ez duten maitasun-bizitza batean gidatzeko eta entrenatzen laguntzeko (Fernandez, 2016).

Honen aurrean, eskolak ikasle guztiei ingurune seguru eta inklusibo batean hezteko eskubidea bermatu beharra die, bereziki, instituzio honek duen funtzio hezitzailea dela eta. Hortaz, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexual ikasleek haien nortasuna modu aske batean adierazten lagunduko duen eta haien ikaskideek sexu-joera ezberdinak positiboki onartzen duten eskola giroa bultzatu beharra du (Quintana, 2020). Hortaz, aurretiaz aipatutako diskriminazio hori ekiditeko xedearekin, umeak txikiak direnetik berdintasuna eta diskurtso matxista eta heteronormatibotik aldentzen den ideologia sustatu beharra dago. Helburu horrekin, HGLk, bai haurren heziketa prozesuan, bai haurra helduen munduko bizipenekin harremanetan jartzen laguntzen duela kontuan hartuz (Lérida, 2017), tresna hezitzaile gisa erabili dezakegu.

2. Metodologia

Lan honetan, esparru teoriko eta kontzeptualean agertutako terminologia gogoan hartuz, maitasunaren gaia lantzen duten eta 10 eta 12 urteko gazteentzat bideratuta dauden hainbat libururen azterketa narratologikoa egin da. Alde batetik, maitasun erromantikoak eta maitasun eredu honen mitoak indartzen dituzten euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean

kokatzen diren hamar liburu aztertu dira. Horretarako, hurrengo eredu jarraitu da testu ezberdinen azterketa narratologikoa egiteko: Lehenengo, liburuak testuinguru batean kokatu egin dira; ondoren, testuko narratzailearen eta mamiaren azterketa egin da eta amaitzeko, aurreko atalean landutako informazioa kontuan hartuz, aipatutako liburuetan agertzen diren maitasun erromantikoaren ezaugarriak aztertu egin dira.

Bestalde, maitasunaren gaia beste modu batean jorratzen duten bost liburu proposatzen dira. Horretarako, horien azterketa literarioa egin da; zehazki, maitasun erromantikoaren mitoekin talka egiten duten euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen diren bost euskal idazleren testuenak. Hauen artean, maitasun eredu anitzak aurkezten dituzten hainbat liburu aukeratu dira, beste batzuen artean, maitasun erromantikoaren ereduak definitzen dituen gizonaren eta emakumearen arteko bikote eredu, harreman monogamoak eta maitasun eredu honek definitzen dituen zenbait mito kolokan jartzen dituztenak. Bigarren atal honen liburuak aztertzeko hurrengo eredu jarraitu egin da: lehenik eta behin, narrazio idatzien sinopsi labur bat egin da eta ondoren, esparru teoriko eta kontzeptualean aipatutako informazioa aintzat hartuz, maitasunaren trataeraren azterketa burutu da.

3. Lanaren garapena

3.1. Maitasun erromantikoa lantzen duten liburuen azterketa

Atal honetan maitasun erromantikoaren hainbat ezaugarri aurkezten dituzten, euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen diren, hamar narrazio idatzien azterketa narratologikoa egingo da; hain zuzen ere, 10 eta 12 urteko gazteentzat bideratuta dauden libururenak. Esan beharra dago, narrazio guztien analisisiek eskema berdina jarraitzen dutela; izan ere, lehenik eta behin, liburua testuinguru batean kokatu egiten da eta narrazioaren sinopsi laburra aurkezten da. Ondoren, testuko narratzailearen ezaugarrien azterketa egiten da, istorioaren mamiaren analisiarekin batera. Azkenik, lanaren esparru teoriko eta kontzeptualean agertutako terminologia kontuan hartuz, liburu bakoitzean agertzen diren maitasun erromantikoaren ezaugarriak aurkezten dira.

3.1.1. *Lehenengo amodioa Suedian* (1997)

Lehenengo amodioa Suedian Joxe Mari Iturralde idazle eta itzultzaile Tolosarrak idatzitako eta Marco San Blasek ilustratutako narrazio idatzia da, 1997. urtean *Ibaizabal* argitaletxeak argitaratu zuena. Gainera, maitasunaren gaia jorratzen duen 12 urteko gazteentzat bideratutako eleberri hau, beste idazle euskaldunek idatzitako lau libururekin batera, *Ekin*

bilduma osatzen du. Risky, narrazio honen protagonista, Aste Santuko oporretan Suediara doa. Eskandinaviar penintsulako estatuan Riskyk bi neska ezagutzen ditu, Ingrid eta Marja. Lehenengoa ezagutu bezain laster honekin maitemintzen da; halarik ere, Ingrid beste mutil batekin musukatzen ikusten duenean eta egoera honi aurre egiteko Marjak laguntza eskaintzen dionean, sentimenduak nahasiak izango ditu.

Idazle tolosarrak bizkaieraz idatzitako maitasun eleberri honen narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen da, liburuaren protagonistak, Riskyk, kontatzen baitu istorioa, narratzaile protagonista eta barnediegetikoa bihurtzen duena. Gainera, bere pentsaerak eta sentimenduak igortzen dituen arren, ez du beste pertsonaien barne mundua ezagutzen; hortaz, narratzaile ez orojakilea dela esan dezakegu. Mamiari dagokionean, egitura lineala jarraitzen duen testu hau Suediako XX. mendeko gizartean kokatzen da. Horrez gain, aipatu beharra dago, nerabeen arteko harremanak deskribatzen dituela; batik bat, protagonistaren (Riskyren) eta bigarren mailako pertsonaien (Ingrid, Marja eta Svenen) arteko erlazioa.

Maitasunaren gaiari baderitzogu, nabarmentzekoa da, testuak bikote heterosexualaren irudiarekin maitasun erromantikoaren bi mito nagusi aurkezten dituela. Alde batetik, *jelosiaren mitoa*, protagonistak bai Anuxka, bai Ingrid kontrako sexuko gazte batekin muxukatzen ikusten dituenean, haserrea adierazten du eta, jeloskor dagoela erakusten duen jarrera. Hala nola, “Anuxka zan musukatzen ziharduana morroi higuigarri haregaz” (Iturralde, 1997, 16 or.) eta “Ingrid jezarleku luzatu hareetan etzunda eta gainean jira-buelta milaka egiten beste morroi ha” (Iturralde, 1997, 181 or.) esaldien bidez.

Beste alde batetik, hurrengo baieztapenen bidez pertsona batekin baino gehiagorekin maiteminduta egotearen ideia desegiten duen mitoa aurkezten da, *esklusibotasunaren mitoa*, harremanak monogamoak soilik izan daitezela aipatzen duena.

Arazo larria izaten dala beti pertsona biren artean bat aukeratzea esango jeustak orain -jarraitu neban neure artean pentsatzen- eta momentu berezia heldu danez gero, nire alde egin dauala hautaketea, ni maite nauala eta beste mutiko hori ez dala ezer berarentzat eta nasai egon naiten esplikatu jeutsat orain... (Iturralde, 1997, 183-184 or.).

3.1.2. *Eta ni zer?* (2003)

Eta ni zer? Fernando Morillo idazle azpeitiarrak idatzitako Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzia da; hain zuzen ere, 12 urteko gazteentzat bideratuta

dagoen eleberria. Gainera, nabarmentzekoa da, 2003. urtean Elkar argitaletxeak argitaratutako liburu honek, beste hainbat libururekin batera *Bihotz taupadak* bilduma osatzen duela. Larraitz, liburuaren protagonista, bere aitarekin eta bere ahizpa Usoarekin bizi da, mutil guztiek gustuko duten neska politarekin. Larraitz ordea, ez da polita eta mutil guztiak bere ahizparen berri izateko hurreratzen zaizkio, protagonistari ziurtasun-gabeziak sorrarazten dizkion egoera. Hala ere, protagonista bere lagun minarekin, Adrianekin, sexu-harremanak izango ditu, beste mutil batzuekin egoteko segurtasuna emango diona.

Morillok idatzitako eleberri honetan narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen da; izan ere, protagonistak, Larraitzek, kontatzen du istorioa, narratzaile bardediegetikoa eta protagonista bihurtzen duena. Testuaren mamiari baderitzogu, aipatu beharra dago, denboraren eta kausa-ondorioaren ordenari eusten dion testu honek Euskal Herriko gaur egungo gizartean kokatzen dela; hortaz, irakurlearen errealitatera hurbiltzen dela esan dezakegu. Gainera, gazteen arteko harremanak deskribatzen ditu, maitasun erlazioetan enfasi berezia jarriz; batez ere, protagonistarenak eta bigarren mailako pertsonaienak (Usoarenak, Adrianenak, Norarenak eta Enekorenak).

Maitasunaren gaiari baderitzogu, idazle azpeitiarraren liburuak pertsonaia homosexual bat aurkezten du, Adrian; hala ere, bigarren mailako pertsonaia honen maitasun harremani ez zaie kontrako sexu bi pertsonen arteko erlazioei ematen zaien bezainbeste garrantzirik ematen. Horrez gainera, testuan maitasun erromantikoa indartzen dituen bi mito nagusi hauteman daitezke. Alde batetik, printze urdinaren kontzeptua aipatzen da, *laranja erdiaren mitoa* indartzen duena. “Zenbat printze urdinekin oheratu ziren” (Morillo, 2003, 50 or.).

Bestalde, *Eta ni zer?* liburuak *jelosiaren mitoa* aurkezten du, protagonistak bere sentimenduak modu honetan adierazten dituenean: “Baina Adrian beste neska batzuekin egoten zela jakin nuenean, menperatu ezineo jelosiak jota egon nintzen.” (Morillo, 2003, 38 or.) eta “Laguna nuen! Nola egin ziezadakeen horrelakorekin? Jode, jode, Sasikumea!” (Morillo, 2003, 105 or.). Azkenik, “Maitemindu egin behar nintzen. Eneko zen hurbil neukan aukera bakarra” (Morillo, 2003, 105 or.) bezalako baieztapenekin protagonistak zoriontasuna kontrako sexu bikote bat izateak ematen duela transmititzen du.

3.1.3. *Oporren zirrara* (2003)

Oporren zirrara Karlos Santiesteban idazle karrantzarrak idatzitako eta Enrique Morente galdakarrak ilustratutako Haur eta Gazte literaturaren barnean kokatzen den narrazio

idatzi bat da; hain zuzen ere, 10 urtetik gorako gazteentzat bideratuta dagoen eleberria. Gainera, aipatu beharra dago, 2003. urtean *DESCLÉE DE BROUWER* argitaletxeak argitaratutako liburu honek, beste hainbat libururekin batera, *Ipotxak eta Erraldoiak* bilduma osatzen duela. Irati, liburu honen protagonista, bere gurasoekin eta gustuko duen mutilarekin batera, mediterraneo aldeko itsasaldeko hotel batera doa oporretan. Iratik ez daki Ikerrekin maiteminduta dagoenentz; hala ere, hotelera heltzen diren lehenengo gauan biziko dituzten abenturek bere sentimenduak argitu ditzaten ahalbidetuko dute.

Santiestebanek idatzitako eleberri honetako narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen da; izan ere, Iratik kontatzen du istorioa, narratzaile bardediegetikoa eta protagonista bihurtzen duena. Mamiari dagokionean, nabarmentzekoa da, denboraren eta kausa-ondorioaren ordenari eusten dion testu hau Euskal Herriko gaur egungo gizarte batean kokatzen dela. Gainera, Iratiren eta Ikerren arteko harremana eta hauek bizitzen dituzten esperientziak deskribatzen ditu.

Maitasunaren arloari deritzogunean, idazle karrantzarraren eleberri honetan agertzen diren bikote guztiak heterosexualak direla esan beharra dago; hain zuzen ere, Irati eta Ikerren arteko erlazioa, eta protagonistaren gurasoen arteko maitasun harremana. Era berean, testu honek maitasun erromantikoak definitzen dituen mito ezberdinen artean aipatzen den *jelosiaren mitoa* aurkezten da; hala nola, protagonistak bere buruari hurrengo galdera egiten dionean: “Kasualitatea izango ote zen Itziar tenis eta plastika plastika taldeetan zegoela?” (Santiesteban, 2003, 12 or.).

Horrez gainera, *jelosiaren mitoa* ere aurkezten duen hurrengo baieztapenaren bidez, “Itziar ez da ni baino ederragoa” (Santiesteban, 2003, 12 or.), kultura patriarkalak genero femeninoari ezartzen dion eder egoteko beharra indartzen da. Izan ere, esaldi honekin, Iratik, polita izatea kontrako sexuko pertsona baten maitasuna lortzeko ezaugarria dela aditzera ematen du. Amaitzeko, aztertutako aurreko liburuen era berean, harreman monogamoak baino ez ditu aurkezten, testuak ez baititu bi pertsona baino gehiagoren arteko maitasun erlazioak erakusten.

3.1.4. *Jara, bikiak eta bikoteak* (2005)

Jara, bikiak eta bikoteak Jasone Osoro idazle gipuzkoarrak idatzitako eta Luis Astrainek ilustratutako Euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzi bat da; bereziki, 12 urteko gazteentzat bideratutako maitasun eleberria. Liburu honek,

Jara eta Jara Bartzelonan eleberriekin batera, 2005. urtean ALFAGUARA Zubia argitaletxeak argitaratutako bilduma bat osatzen du. Jarak, liburu honen protagonistak, Urko deitzen den mutil lagun bat du hasieran; hala ere, mutilarenganako dituen sentimenduak nahasiak ditu, honekin maiteminduta ez dagoela aipatzen badu ere, ez baitu nahi beste neskarik bere ondoan egon dadin. Honek protagonistak liburuan agertzen diren beste emakume-pertsonaiekin, Ihintza eta Norarekin, tirabirak izan ditzan sortzen du.

Haur eta Gazte Literaturako narrazio honetan, narratzailea hirugarren pertsonan mintzatzen da eta pertsonaia guztien barne-mundua zein sentimenduak ezagutzen ditu; narratzailea kanpodiegetikoa eta orojakilea bihurtzen duena. Mamiari dagokionean, nabarmentzekoa da, egitura lineala jarraitzen duen idazle gipuzkoarraren narrazioa gaur egungo gizartean kokatu egiten dela. Gainera, nerabeen arteko harremanak deskribatzen ditu; batik bat, liburuaren protagonistarenak (Jararenak) eta bigarren mailako pertsonaienak (Nora eta Ihintzarenak).

Maitasunaren gaiari deritzogunean, Osororen maitasun eleberri honetan aurkezten diren bikote guztiak heterosexualak direla aipatu beharra dago. Horrez gain, laugarren narrazio honek maitasun erromantikoaren mito anitz aurkezten ditu, nabarmenena *jelosiaren mito*a izanik. Izan ere, Jarak Urko beste neska batekin protagonistari berezia iruditzen zaion era batean hitz egiten ikusten duenean, zeloak sentitzen ditu; beste batzuen artean, hurrengo esaldien bidez adierazita: “Jeloskor zegoela sentitu zen” (Osoro, 2015, 39 or.) eta “Noraren bat-bateko interesak batere graziarik ez ziola egin nabaritu zen” (Osoro, 2015, 50 or.).

Bestalde, “printzea topatzeko igel asko musukatu behar” (Osoro, 2015, 27 or.) bezalako baieztapenen bidez maitasun erromantikoaren bigarren mito bat indartzen da; hain zuzen ere, *laranja erdiaren mito*a. Izan ere, mota honetako esaldi hauek pertsona bakoitzarentzat banako bakarra dagoela adierazi egiten dute, betiere kontrako sexukoa izanik. Amaitzeko, aipatu beharra dago, eleberri honek harreman monogamoak baino ez dituela aurkezten, pertsona gehiagoren arteko maitasun erlazio motak alde batera utziz “Beraz, Urko libre al dago?” (Osoro, 2015, 50 or.).

3.1.5. Bihotz ausarta (2006)

2006. urtean ALFAGUARA Zubia argitaletxeak argitaratu zuen *Bihotz ausarta* liburua, Joanes Urkixo idazle bilbotarrak idatzitako eta Rober Garay artistak ilustratutako euskal Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzia da. Gainera, aipatu beharra dago,

12 urteko gazteentzat bideratuta dagoen liburu honek maitasunaren gaia jorratzen duela; hortaz, maitasun eleberri baten aurrean gaudela esan dezakegu. Liburuaren protagonistak, Urtzik, etxean egoera gorabeheratsua dauka; izan ere, aitak sarri egiten dizkio errietak. Hori gutxi bada ere, Urtzi Oihanerekin dago maiteminduta, eskolako neska zoragarrienarekin. Hala ere, futboleko aritzen den Txispas izeneko mutila, protagonistak gustuko duen neskaren atzetik ere badabil, bi mutilen arteko lehiakortasuna sortuko duena.

Idazle bilbotarrak idatzitako narrazio honetako narratzailea hirugarren pertsonan mintzatzen da eta protagonistaren barne-mundua zein sentimenduak ezagutzen ditu; narratzailea kanpodiegetikoa eta orojakilea bihurtzen duena. Testuaren mamia baderitzogu, nabarmentzekoa da, egitura lineala jarraitzen duen Urkixoren testuak gaur egungo gizartean kokatu egiten dela; bereziki, XXI. mendeko Euskal Herriko testuinguruan. Era berean, protagonistaren (Urtziren) eta bigarren mailako pertsonaien (Oihaneren, Txispasen, Oskarren eta abarren) eguneroko bizitza deskribatzen du, maitasunaren gaian enfasi berezia jarritz.

Liburuak jorratzen duen gai nagusiari deritzogunean, Urkixoren eleberriak harreman heterosexualak soilik aurkezten ditu; beste batzuen artean, Urtzik eta Oihanek, Txispasek eta Oihanek, eta Edortak eta Garazik osatzen dituzten bikoteak. Horrez gainera, maitasun erromantikoak zehazten dituen hainbat ezaugarri igarri daitezke; agerikoena *jelosiaren mitoa* izanik. “Baina zer ote du Txispas horrek? Lepo gainean buruaren ordezkari futbol-pilota dauka eta.” (Urkixo, 2006, 22 or.) edo “Hura ikustean Urtzik zirrara desatsegina sentitu zuen “etsai bat ikustean senti daitekeen zirrara desatsegin bera” pentsatu zuen berak.” (Urkixo, 2006, 24 or.) esaldiek agerian uzten dutena.

Mito horrez gain, testuak *eskusibotasunaren mitoa* ere, momentuan pertsona bakarrentzako maitasuna izan dezakegula defendatzen duen sinesmena, aurkezten du, bikotearekiko posesibotasun puntu batekin. “Argi zegoen Txispasen abisua: gehiegi begiratzen ziola Oihaneri eta ez hainbeste begiratzeko.” (Urkixo, 2006, 37 or.). Azkenik, “Neskak oso erromantikoak direla diote.” (Urkixo, 2006, 23 or.) moduko esaldiak maitasun erromantikoak emakume gazteak maitasunean eta mendekotasunean hezten dituenaren erakusgai dira.

3.1.6. Udalekua, hura lekua! (2006)

Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den *Udalekua, hura lekua!* liburuak, Karrantzan jaiotako Karlos Santiesteban idazleak idatzitako eta Enrique Morente galdakarrak ilustratutako narrazio idatzia da; batez ere, aurreko eleberrien era berean, maitasunaren gaia

jorratzen duena. 10 urtetik gorako gazteentzat zuzenduta dagoen liburu hau 2006. urtean argitaratu zuen *DESCLÉE DE BROUWER* argitaletxeak, beste hainbat euskal idazleek idatzitako 15 libururekin batera. Ibon, udalekuetara joateko irrikaz dagoen protagonista, gurasoak konbentzitzen ditu bere lagun minarekin batera uda igarotzeko lekura joan dadin. Hala ere, protagonista gehien urduritzen duena biziki gustuko duen neska, Argia, ere haiekin joango dela da, istorioan zehar Ibonekin batera abentura ezberdinak biziko dituen pertsonaia.

Santiestebanek idatzitako narrazio honetako narratzailea, aurretiaz aipatutako protagonista da, Ibon, bere sentimenduak eta pentsaerak kontatzen dituen arren, pertsonaia guztien barne-mundua ezagutzen ez duena. Hortaz, narratzaileak istorioan duen parte hartzeak, narratzaile barnediegetikoa bihurtzen du. Testuaren mamiari baderitzogu, aipatzekoa da, denboraren eta kausa-ondorioen ordenari eusten dion testu hau, Euskal Herriko gaur egungo gizarte batean kokatzen dela. Horrez gain, esan beharra dago, protagonistaren eta bigarren mailako pertsonaien (Argia, Olatz eta Aitorren) esperientziak eta harremanak deskribatzen dituela.

Maitasunaren arloari deritzogunean, aurretiaz aztertutako liburuetan bezala, idazle karrantzarraren testu honek aurkezten duen maitasun harreman bakarra heterosexuala dela aipatu beharra dago, Ibonek eta Argik osatzen dutena. Halaber, “-Nik ere egin nahi dut horrelako jauzi bat. Gora-gora igo eta gero ezpain gozo batzuekin jo! -esan zuen Olatzek. - Galdetu Iboni, beharbada ez zaio axola zurekin errepikatzea... -proposatu zuen Aitorrek.” (Santiesteban, 2006, 54 or.) bezalako elkarrizketekin, non sexu berdineko bikoteak soilik aurkezten diren, sexu-joera ezberdineko pertsonak alde batera uzten dira.

Horrez gain, Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den maitasun eleberri honek, aurretiaz aztertutako hainbat narrazio idatziren era berean, maitasun erromantikoaren *jelosiaren mitoa* aurkezten du bikote honek bizitzen dituen askotariko abentura batean, Argik Iboni hurrengoa aipatzen dionean: “Zeloak dituzu behiari “maitea” esan diodalako?” (Santiesteban, 2006, 86 or.).

3.1.7. Atearen atzean (2007)

2007. urtean *Elkar* argitaletxeak argitaratu zuen Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den *Atearen atzean* eleberria, Antton Kazabon idazle oiartzuarrak idatzitako eta José Belmontek ilustratuko narrazio idatzia da. Horrez gain, aipatu beharra dago, 12 urteko ikasleentzat bideratuta dagoen testu hau, maitasunaren gaia jorratzen duten beste bost

libururekin batera *Bihotz taupadak* bilduma osatzen duela. Iraitz, liburu honen protagonista, bere mutil lagunarekin, Ikerrekin, duen harremana uzten du Josurekin maiteminduta dagoela aipatzen du eta, institutuko irakasle batekin. Josuk, protagonistak baino 20 urte gehiago baditu ere, Iraitzek irakasleak harenganako duen interesa ikusita, bere bihotza zabaltzea erabakitzen du.

Kazabonen liburu honetako narratzailea, aurretiaz aipatutako Iraitz da, liburuaren protagonista; hala ere, ez du pertsonaia guztien barne-mundua ezagutzen, narratzaile barkediegetikoa bihurtzen duena. Mamiari baderitzogu, nabarmentzekoa da, egitura lineala jarraitzen duen eleberria gaur egungo Euskal Herriko gizartean kokatzen dela eta nerabeen maitasun kontuak aipatzen dituela, bereziki protagonistaren eta bigarren mailako pertsonaien (Iker eta Josuren) artekoak.

Maitasunaren gaiari deritzogunean, aurretiaz aztertutako liburu gehienetan ez bezala, testu honetan, harreman heterosexualak gehienak badira ere, pertsonaia homosexual bakarra agertzen da istorioaren amaieran. Hala ere, “Nahiz eta zuk beste emakume bat maitatu, nik, ezkutuan eta isil isilik bada ere, berdin-berdin jarraituko nuen zu maitatzen. Orain, ordea, aukera hori ere kendu didazu” (Kazabon, 2007, 86 or.) motatako ideiek maitasun erromantikoaren *eskusibotasunaren mitoa* indartzen dute.

Horrez gainera, “Amorratio pixka bat hartuko dut denak kontatzen dizkidazunean, baina denak irentsi beharko ditut. Zer erremedio!” (Kazabon, 2007, 45 or.) bezalako baieztapenekin, protagonista jelskor aurkezten da, maitasun erromantikoaren *jelsiaren mitoa* agerian uzten duena. Amaitzeko, protagonistak zorientasuna kontrako sexu bikote bat izateak ematen duela transmititzen du “Hemen bukatzen dira nire ingeleseko hobekuntzak, nire ikasturte amaierako ibilaldiak, eta gainontzeko nire proiektu guztiak. Batez ere, zurekin nituenak. Nire bizitzari zentzua eta bizipoza eman behar ziotenak.” (Kazabon, 2007, 84 or.).

3.1.8. *Ez gara elkarrekin zahartuko (2008)*

Ez gara elkarrekin zahartuko liburua Arnaud Cathrin idazle frantsesak idatzitako eta Aiora Jaka itzultzaile gipuzkoarrak itzultitako narrazio idatzi bat da; bereziki, 12 urteko gazteentzat bideratuta dagoen maitasun eleberria. Horrez gain, esan beharra dago, 2008. urtean *Elkar* argitaletxeak argitaratutako liburu honek, beste hainbat libururekin batera, *Xaguxar* bilduma osatzen duela. Sylvain, liburu honen protagonista, Mahaliaren etxera bizitzera joango dela erabakitzen du eleberriaren hasieran, bera gabe ezin dela bizi aipatzen du eta. Hala ere,

protagonistaren anaiak shock psikologiko bat dauka, Sylvainen etxetik joateko erabakia guztiz aldatzen duena. Egoera honetan, protagonistak Camille ezagutuko du, Mahaliarekiko dituen sentimenduak hankaz gora jarriko dizkion pertsonaia.

Haur eta Gazte Literaturako narrazio honetan, narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen da, liburuaren protagonistak, Sylvainek, kontatzen baitu istorioa. Beraz, pertsonaiak narrazioan duen parte hartzeak, narratzaile bardediegetikoa eta protagonista bihurtzen du. Testuaren mamiari dagokionean, nabarmentzekoa da, kausa-ondorioen ordenari eusten dion eleberri honek, Sylvainek bigarren mailako pertsonaiei (bere familiari, Mahaliari eta Camilleri) bidaltzen dizkion eskutitzen bitartez kontatzen duela istorioa. Gainera, maitasun harremanetan enfasi berezia jartzen du; izan ere, istorioaren erdigunea protagonistaren maitasun kontuak dira.

Maitasunaren arloari baderitzogu, Jakak itzulitako eleberriak bikote heterosexualak baino ez ditu aurkezten; hain zuzen ere, Sylvainek eta Mahaliak, Sylvainek eta Camillek, eta Sylvainen eta Mahaliaren gurasoek osatzen dituzten bikoteak. Horrez gainera, maitasun erromantikoa hainbat ezaugarri antzeman daitezke; alde batetik, hurrengo esaldiaren bidez, protagonistak maitasuna edozein giza alderdiren aurretik jartzen du: “Maitasuna orenen gainetik dago” (Cathrine, 2008, 14 or.). Halaber, “Ezin naiz gehiago Mahalia gabe bizi” (Cathrine, 2008, 16 or.) moduko esaldiekin kontrako sexuko pertsona baten maitasuna izatearen mendekotasuna duela erakusten du.

Bestalde, aurretiaz aztertutako hainbat liburuetan gertatzen den legez, Cathrinek idatzitako liburu honek harreman monogamoak baino ez ditu aurkezten. Era berean, bi pertsona baino gehiagoren arteko maitasun erlazioak alde batera uzten ditu; adibidez, Sylvainek bere pentsamenduak modu honetan adierazten dituenean: “Camille, aitortu behar dizut nire bihotza hartuta dagoela jada” (Cathrine, 2008, 48 or.).

3.1.9. *Ritak nobioa du* (2010)

2010. urtean *Elkar* argitaletxeak argitaratu zuen *Ritak nobioa du* liburua, Mikel Valverde idazle gasteiztarak idatzitako eta Juan Martin Elexpuruk euskarara itzulitako Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzia da. Horrez gain, 10 urtetik gorako gazteentzat bideratuta dagoen maitasunaren arloa jorratzen duen testu honek, beste lau libururekin batera, *Rita* bilduma osatzen du. Ritak, liburuaren protagonistak, Bertari mutil-laguna bilatzen laguntzen dio; izan ere, Ritaren lagun minak maitatzen zaituen kontrako sexuko

pertsona bat alboan izatea izugarri miresten du. Nobioa bilatzearen prozesu honek, gaizki-
ulertu baten ondorioz, bi lagunek tirabirak izan ditzaten sortuko du.

Valverderen narrazio honetan, narratzailea hirugarren pertsonan mintzatzen da eta protagonistaren barne-mundua eta sentimenduak ezagutzen ditu; hortaz, narratzaile kanpodiegetikoa eta orojakilea dela esan dezakegu. Testuaren mamiari deritzogunean, esan beharra dago, egitura lineala jarraitzen duen narrazio hau gaur egungo gizartean kokatzen dela. Horrez gain, gazteen arteko lagunarteko harremanak deskribatzen ditu; batik bat, liburuaren protagonistaren (Ritaren) eta bigarren mailako pertsonaien (Bertaren eta Eduren) artekoak.

Maitasunaren arloari baderitzogu, idazle gasteiztarraren testuak maitasun erromantikoak bultzatzen duen maitasun eredu heterosexuala soilik aurkezten du. Hala nola, “Aldizkarietako neska guztiek dute senargai” (Valverde, 2010, 7 or.) esaldien bidez eta aurkezten diren pertsonaien arteko erlazio moten bidez; beste batzuen artean, Berta eta Eduren arteko harremana edota Ritaren gurasoen artekoa. Horrez gainera, “Beste neskaren batek kenduko balit, euli bat bezala zanpatuko nuke” (Valverde, 2010, 19 or.) motatako ideiek maitasun erromantikoaren *jelosiaren mitoa* eta *esklusibotasunaren mitoa* aurkezten dute, harremanak monogamoak bakarrik izan daitezkeela indartzen dutenak.

Amaitzeko, ezinbestekoa da aipatzea *Ritak nobioa du* liburuak kontrako sexuko bikote bat izateari ematen dion garrantzia; hurrengo baieztapenen bidez, maiteminduta egotearen sentimendua zoriontsu izatearen baliokide gisa aurkezten du eta: “Nobioa izatea oso gauza ona delako” (Valverde, 2010, 7 or.) eta “Senargairik edo andregairik ez duena jende arraroa da” (Valverde, 2010, 10 or.).

3.1.10. *Ezekiel nora ezean* (2012)

Ezekiel nora ezean Jasone Osoro idazle gipuzkoarrak idatzitako Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzia da; hain zuzen ere, 12 urteko gazteentzako bideratuta dagoena. Gainera, esan beharra dago, 2012. urtean *Elkar* argitaletxeak argitaratutako maitasun eleberri honek, beste hainbat libururekin batera *Taupadak* bilduma osatzen duela. Ezekiel, liburu honen protagonista, bere amarekin eta bere arreba Mariarekin bizi da; hala ere, inoiz ikusi ez duten aita herrira bueltatuko da bere emazte berriarekin eta Norarekin, aitaren emaztearen alabarekin. Egoera berri honek gorabeherak sortuko ditu Ezekielen bizitzan; beste batzuen artean: amaren eta arrebaren arteko harremana eta bere neska lagunarengan dituen sentimendu nahasiak.

Osororen maitasun eleberri honetan narratzailea lehenengo pertsonan mintzatzen da, liburuaren protagonista, Ezekiel, baita istorioa kontatzen duena; hortaz, narrazioan duen parte hartzea dela eta, narratzaile bardediegetikoa eta protagonista dela esan dezakegu. Testuaren mamiari baderitzogu, aipatu beharra dago, egitura lineala jarraitzen duen eleberri hau Euskal Herriko gaur egungo gizartean kokatzen dela. Gainera, maitasun erlazioetan enfasi berezia jarritz, nerabeen arteko harremanak deskribatzen ditu; batik bat, protagonistarenak eta bigarren mailako pertsonaienak (Mariarenak, Norarenak, Ezekielen aitarenak, Olarenak, etabarrenak)

Maitasunaren gaiari deritzogunean, idazle gipuzkoarraren *Ezekiel nora ezean* liburuak harreman homosexual bat aurkezten du; hala ere, testuan agertzen diren erlazio guztietatik sexu berdineko bi pertsonen arteko harremana bakarra dela esan beharra dago. Gainera, hurrengo baieztapenek argi uzten duten moduan, erlazio heterosexualek askoz pisu handiagoa dute: “Leon eta bion arteko berbeta-gai bakarrak bi ziren: motorrak eta neskak” (Osoro, 2012, 68 or.) eta “Hantxe elkartuko ginelako mutilak eta neskak. Eta hantxe izango zuelako aukera norbaiti musua emateko” (Osoro, 2012, 52 or.).

Horrez gain, maitasun erromantikoaren hainbat mito indartzen dira; alde batetik, *jelosiaren mito*a: “Kalanbrea sentitu nuen gorputzean. Zeloak. Ustez ez nintzen batere jeloskorra baina Elena eta Leon egoera hartan ikusteak erakutsi zidan baietz.” (Osoro, 2012, 105 or.). Bestalde, harreman irekien kontzeptua aipatzen bada ere, *esklusibotasunaren mito*a indartzen duten esaldi anitz agertzen dira, harremanak monogamoak soilik izan daitezkeela aipatzen duen maitasun erromantikoak duen sinesmena; adibidez, “Zertarako jakin nahi duzu? Elena zuretzat libre dagoen jakiteko?” (Osoro, 2012, 53 or.).

3.2. Bestelako maitasun harremanak lantzen dituzten liburuen azterketa

Atal honetan, maitasun eredu ezberdinak aurkezten dituzten eta hortaz, maitasun erromantikoaren ezaugarriak kolokan jartzen dituzten bost narrazio idatzi aurkeztuko dira; zehazki, 10 eta 12 urteko gazteentzat bideratuta dauden bost euskal idazleren testuak. Narrazio idatzien azterketa guztiek estruktura berdina jarraitzen dute, lehenengoz, bakoitzaren sinopsi laburra aurkezten baita eta honen ondoren, esparru teoriko eta kontzeptualean aztertutako maitasun ereduak kolokan jartzen dituzten ezaugarriak aztertzen dira eta.

3.2.1. *Hiru istripu eta bi amodio* (2013)

Fernando Morillok idatzitako *Hiru istripu eta bi amodio* narrazio idatzia, maitasunaren gaia jorratzen duen eta 12 urteko gazteentzat bideratuta dagoen eleberria da. Anuxkak, Mari

Curie zientzialaria eredu duen protagonistak, mendi istripu baten ondorioz, Galder ezagutzeko parada izango du, hamar urte zituenetik gustuko duen mutila. Momentu honetatik aurrera, Galderrek eta Anuskak zirrara berezia sentituko dute elkarrekin daudenean eta egoera honen eraginez, mutilak momentuan Juditekin duen maitasun harremana moztea erabakiko du. Hala ere, zirkulazio-istripu batean protagonistak Galderrekiko dituen sentimenduak eta bere sexu-joera kolokan jarriko dituen neska oso berezi bat ezagutuko du, Izortze. Protagonistak neskak ere gustuko dituela ziurtatzen duenean, bi pertsonaiekin abentura ezberdinak bizitzen hasiko da, azkenean, bietako batengandik sentimendu biziagoak dituela ohartzen denerate.

Idazle azpeitiarraren testu honek, bai mutilak bai neskak gustuko dituen protagonistaren irudiarekin, maitasun erromantikoak indartzen dituen hiru ezaugarri nagusi kolokan jartzen ditu. Lehenik eta behin, protagonistaren lagun batek, Laidak, liburuaren hasieran aipatzen duen hurrengo baieztapenak “Ez al duzu Entzun Barricadaren “Ya no existen príncipes azules”? - ihardetsi zion Gutuneri-. Ez da printze urdinik!” (Morillo, 2013, 14 or.) gure gizartean oso hedatua dagoen eta aurreko atalean ikusi dugun legez, literaturan presentzia handia duen *laranja erdiaren mitoa* eraitsi egiten du.

Bigarrenik, bisexualitateak, eleberriaren gai nagusia denak, maitasun erromantikoak indartzen duen kontrako sexuko bi pertsonen arteko harremana kolokan jartzen du; izan ere, istorioan zehar, bai Anuskak, bai protagonistaren lagun batek mutilak zein neskak gustuko izatea posible dela erakusten dute. Azkenik, testuak momentuan pertsona bakarrarentzako maitasuna izan daitekeela indartzen duen *esklusibotasunaren mitoa* desagiten duten hainbat ideia ere aurkezten ditu; hala nola, Izortzek aipatzen duen hurrengo esaldiaren bidez: “Hasteko, zergatik ezinbestean aukeratu behar? Zergatik bata edo bestea? Edo mutila edo neska? Zergatik ez biak ezagutu?” (Morillo, 2013, 132 or.).

3.2.2. *Maitasun sua* (2013)

Aitor Arana idazle legazpiarrak idatzitako *Maitasun sua* testua, Haur eta Gazte Literaturaren barruan kokatzen den eta 12 urteko gazteentzat bideratuta dagoen maitasun eleberria da. Ekainek, liburuaren protagonistak, Historiako ikasturteko azken azterketa ez gainditzearen ondorioz, Garesko gertakari historiko bati buruzko bost orrialdeko idazlana burutu beharra du. Hortaz, nahiz eta lan aspergarri hori egiteko gogo askorik ez izan, protagonista dokumentazio bila hurbiltzen da herriko udaletxera, istripu txiki batek eraginda, bere bizitzarekin antzekotasunak dituen 1345ean Garesen bizi ziren bi gazteren istorio latza

aurkituko duen lekura. Dokumentazio hau baliagarria izango da, dela udako oporren hasieran egin behar duen lana disfrutatzeko, dela maitasunaren indarrak jabetzeko eta hortaz, informazio honek bere bizitzako pauso garrantzitsuenetariko bat eman dezan eragingo du.

Proposatutako bigarren narrazio idatzi honek, aurreko liburuaren era berean, maitasun erromantikoak barreiatzen duen maitasun harremanak neska baten eta mutil baten artekoak soilik izan ahal direnaren ideia kolokan jartzen du. Izan ere, liburuak bi bikote homosexualen istorioa kontatzen du; hain zuzen ere, Erdi Aroan bizi izan ziren Juze eta Samuelena eta gaur egungo gizartean bizi diren Ekain eta Jose Luisena. Hortaz, Erdi Aroko gazteen maitasun istorio gogorraren bitartez, non gayak izateagatik bi mutilak hil egiten dituzten, “Min handia egingo digute, noski, mundu osoak ikus dezan zer egiten zaien gu bezalako bekatariari.” (Arana, 2013, 86 or.) irakurleak gai honekiko sentikortu egiten dituela esan dezakegu.

Antzinean bizi ziren pertsona homosexualak pairatu behar zituzten egoerak ez ezik, gaur egungo gizartean sexu bereko pertsonak gustuko dituzten gizabanakoek bizitzen dituzten egoerak ere deskribatzen ditu. Hala nola, komentario desegokiak jaso ditzaten “baina badakigu maritxuoi buztanak ikustea gustatzen zaizuela” (Arana, 2013, 10 or.) edo bere sexu-joera dela eta, ezegonkor senti daitezten “hamasei urteko mutilei ez zaie gustatzen gayak diren inork galdetzerik” (Arana, 2013, 17 or.).

3.2.3. *Maren (2017)*

Alaine Aguirrek idatzitako *Maren*, gazte zein helduentzat zuzendutako narrazio idatzia da; hain zuzen ere, maitasunaren gaia jorratzen duen eleberria. Maren, gurasoek asko babesten duten protagonista, pianoa jotzea gustuko du eta bere amets nagusia musikaria izatea dela esan dezakegu. Eleberriaren hasieran, Maren Perurekin ateratzen dago; alabaina, txortan lehenengoz egiten dutenean protagonista ez da oso eroso sentitzen ez baitu pentsa bezainbeste disfrutatzen. Hala eta guztiz ere, bi pertsonaia hauen harremana Peruk neskari esandako gezur batek ezegonkortuko du eta gainera, egoera honetan, Marenek Libe ezagutuko du, bere bizitzan aldaketa handiak ekarriko dizkion neska. Izan ere, Libek maitasuna benetan zertan deritzon sentitzea ahalbidetuko dio eta horrez gain, Marenen bizitzan sartzen den neska berri honi esker, protagonistaren gurasoak alabaren zoriontasuna edozer gauzaren gainetik dagoela ulertuko dute.

Idazle bermeotarraren narrazio idatzi honek, aurretiaz proposatutako bi eleberrien era berean, maitasun erromantikoak barreiatzen duen kontrako sexuko pertsonen arteko erlazio

idealaren sinesmena desegiten du; izan ere, testu honek bi nesken arteko maitasun harremana deskribatzen du. Sexu bereko bi pertsonen erlazioa kontatu ez ezik, LGTBI+ kolektiboko pertsonak pairatu ditzaketen ezinegonak transmititzen ditu; hala nola, “Ezin ulertzea nolatan den posible, nola izan daitekeen berari, beti mutilak gustatu izan zaizkion horri, neska bat gustatzea. Ezin ulertzea noiztik, zergatik, nola gertatu den hori. Ezin ulertzea bera zer... zer... zer den” (Agirre, 2017, 76 or.) moduko esaldien bidez.

Horrez gain, irakurlea sentikor bihurtzeko xedearekin, aipatutako kolektiboko pertsonak pairatzen dituzten egoerak aipatzen dira “Neska batekin ibiltzeagatik min emango dizuten beldurra daukat, hori bai” (Agirre, 2017, 110 or.), betiere egoera honek gizartean berez duen normaltasunez jorratuz: “Ez niri, ez aitari ez diguzu minik ematen neska bat duzulako gogoko” (Agirre, 2017, 110 or.).

3.2.4. *Sekretuen hamaika zapoak (2018)*

Oihane Fernandez idazle getxoztarrak idatzitako *Sekretuen hamaika zapoak* 10 urtetik gorako irakurleentzat bideratuta dagoen narrazio idatzia da. Liburuaren protagonistaren izena, bere inguruko pertsona guztiek June deitzen badute ere, Luka da. Hala ere, protagonistak gordetzen dituen sekretu askoren artean, hau handiena da, Lukaren lagun minak ere ez baitu honen berririk. Protagonistak, egun batean, sekretuen iraungitze datari buruz pentsatzen dagoela, bere sekretu handiena bere barruan hiltzerik nahi ez duelaz konturatzen da eta honen ondorioz, bere lagun minari kontatuko diola erabakitzen du.

Gizarte heteropatriarkalak eta hortaz, maitasun erromantikoaren hedapenak indartzen dituen rola direla eta, testuak pertsona transexualak pairatzen dituzten jokaerak deskribatzen ditu; hala nola, Lukak bere familiarekin batera ezkontza batera doanean jasotzen dituen ondorengo iruzkinen bidez: “Dendako mutikoen sailean galdu egin zinen?” (Fernandez, 2018, 50 or.) eta “Neska edo mutila baino, pailazoaren antza hartzen diot nik” (Fernandez, 2018, 51 or.). Maitasunaren gaiari deritzogunean, gaia aurreko hiru liburuen era berean jorratzen ez badu ere, interesgarria da idazle getxoztarrak liburu honetan lagun arteko maitasunari ematen dion trataera. Izan ere, protagonistak bere lagun minari, nahiz eta neskei egokitzen zaizkien genitalekin jaio izan, mutila sentitzen dela aipatzen dionean, honek horrela erantzuten dio: “Nik maite zaitut. Niri bost axola dit neska, mutila edota izokina zaren. Nire lagunik onena zara. Nire adiskidea. Eta kito” (Fernandez, 2018, 42 or.), maitasunak generorik ez duela defendatzen duen ideia.

3.2.5. *Eiderren egunerokoa (2019)*

Eiderren egunerokoa Jasone Osoro idazle gipuzkoarrak idatzitako Haur eta Gazte Literaturaren barnean kokatzen den narrazio idatzia da; zehazki, 10 urtetik gorako gazteentzat bideratuta dagoen maitasun eleberria. Eider, liburuaren protagonista, printze urdinik existitzen ez dela eta pozik bizitzeko inoren beharra ez duela pentsatu arren, Ikerrekin, eskolako eskalataile liluragarrienarekin, amets egiten du. Protagonistak gutxien espero duen momentuan, Iker gerturatuko zaio eta maitasun harreman bat hasiko dute, Eider bere egunerokoan maitemina sortzen dizkion sentimenduak idaztera bultzatuko dion egoera. Liburuaren hasieran bikotearen maitasun erlazioa zoragarria badirudi ere, istorioa aurrera doan heinean, Ikerrek duen protagonistarekiko jarrera posesiboak eta kontrolatzaileak harremana toxikoa bihurtuko du. Hala ere, Eider hain dago maiteminduta Ikerrekin, jarrera hauek normaltasunez hartuko dituela eta hots, bere bikoteak onartzen ez dituen ekintzengatik errudun sentituko dela.

Idazle gipuzkoarraren eleberri honek erlazio heterosexual baten irudiarekin erakusten duen harreman toxikoaren bidez, maitasun erromantikoaren mito anitz eraitsi egiten ditu. Lehenik eta behin, Eiderrek liburuaren hasieran eta amaieran aipatzen dituen hurrengo baieztapenen bidez, maitasun erromantikoak indartzen duen *laranja erdiaren mitoa* eraitsi egiten du: “Hori ipuin txotxoloetan bakarrik gertatzen dela, salbatuko zaituen printze urdinarena eta kaka hori guztia” (Osoro, 2019, 5 or.) eta “Zeinek sinisten ditu printze urdinaren istorioak? Faborez!” (Osoro, 2019, 91 or.).

Bigarrenik, Osororen narrazio honek aurreko ataleko testu askok aurkezten duten *jelosiaren mitoa* deseraiki egiten du, “Ez nekien oihu egin, altxatu eta alde egin edo kontuak eskatzen hasi. Baina berehala ohartu nintzen ez nuela ezertarako eskubiderik. Iker libre da, baita Alazne ere.” (Osoro, 2019, 16 or.). Azkenik, maitasun erromantikoak emakumeak mendekotasunean heztearen ideia zabaltzen badu ere, protagonistak sinesmen honen kontrako jarrera aurkezten du: “Zer uste du? Nire jabea dela? Berarentzat ez da erraza ia egun osoa etxean ematea, kirolrik egin gabe. Hori ulertzen dut. Baina ezin nau kontrolatu.” (Osoro, 2019, 35 or.).

4. Ondorioak

Lanean zehar egindako hamabost libururen azterketa narratologikoek esparru teorikoan eta kontzeptualean aztertutako teoriarekin batera, zenbait ondorio ateratzera bideratu naute.

Izan ere, momenturarte euskal Haur eta Gazte Literaturaren barruan asko ikertu ez den gaiaren inguruan burututako ikerketa hasiera batean uste baino askoz aberasgarriagoa suertatu da.

Lehenik eta behin, ezinbestekoa iruditzen zait finkatutako adin tarterako maitasun eredu ezberdinak euskaraz lantzen dituzten narrazio idatziak aurkitzeak ekarri dizkidan zailtasunak aipatzea; orokorrean, euskaraz beste hizkuntzatan baino askoz lan literario gutxiago publikatzen baitira urtero. Horrez gainera, maitasunaren gaia maitasun erromantikoaren perspektibatik urrun jorratzen dituzten liburuak batzen dituen baliabiderik ez egoteak askoz gehiago zailtzen du lana; halere, modu berean, faktore honek lan honen garrantzia areagotzen du.

Eragozpenak alde batera utziz eta, berez, lanaren mamian murgilduz, urteen poderioz, maitasun eredu anitzak aurkezten dituzten narrazio idatziak gero eta gehiago direla agerian geratu da. Izan ere, aurreko atalean hauteman daitekeen legez, gai hau lantzen duten lan literarioak azken hamarkadan publikatuak izan dira. Maitasun erromantikoa lantzen duten liburuak aldiz, data goiztiarragoa dute. Hori dela eta, erritmo mantsoan bada ere, eta hortaz, eskoletan oraindik maitasun erromantikoaren ezaugarriak normaltasunez aipatzen dituzten narrazio ugari badaude ere, literaturak, gai honi dagokionez, aldaketak jasaten ari dela nabaritu daiteke.

Maitasunaren gaiak Haur eta Gazte Literaturan izan duen eboluzioa aipatzearekin batera, ezinbestekoa da nabarmentzea, denbora pasa ahala, nola, maitasunari deritzogunean, idazle euskaldun batzuk haien diskurtsoa aldatu duten. Ikerlan honetan, Jasone Osorok eta Fernando Morillok bai maitasun erromantikoa¹, bai beste maitasun eredu batzuk² lantzen dituzten liburuak idatzi dituztela ikus dezakegu. Hala ere, maitasuna bi modu ezberdinetan jorratzen duten narrazio idatzien argitalpen urteen artean denbora tarte nahikoa dagoela hauteman daiteke, aurreko ideia sostengatzen duen faktorea. Era berean, interesgarria da multzo bakoitzeko lan literarioen idazleen generoa aztertzea. Izan ere, maitasun erromantikoaren ezaugarriak dituzten liburuak barne hartzen dituen atalari baderitzogu, bi emakume idazle soilik daudela antzeman dezakegu, hauetako bat liburuaren itzultzailea izanik. Maitasun eredu anitzak aurkezten dituzten liburuak biltzen dituen atalean aldiz, hiru emakume idazle eta bi gizonezko daudela ikus daiteke. Gertaera hau emakumeek maitasun erromantikoa

¹ Jasone Osorok *Jara, bikiak eta bikoteak* (2005) eta *Ezekiel nora ezean* (2012), eta Fernando Morillok *Eta ni zer?* (2003).

² Jasone Osorok *Eiderren egunerokoa* (2019) eta Fernando Morillok *Hiru istripu eta bi amodio* (2013).

zabaltzen ez jarraitzeko dugun beharraren ondorio izan daiteke, maitasun eredu honek sistema heteropatriarkalaren biktima bihurtzen baikaitu.

Azkenik, Gradu Amaierako Lan honek duen erabilgarritasuna azpimarratzea gustatuko litzaidake, benetan maitasun eredu anitzak aurkezten dituzten narrazio idatziak eskaintzen ditu eta. Maitasun mota hauen artean, homosexualitatea, bisexualitatea eta lagunarteko maitasuna aurki ditzakegu. Azken maitasun mota hau sarri alde batera uzten den maitasun eredua bada ere, oso garrantzitsua da honetaz mintza gaitzen eta duen garrantzia eman diezaiozun. Gainera, lagunarteko maitasuna erakusten duen liburuak, *Sekretuen Hamaika Zaporeak* (2018), maitasuna benetan definitzen duen hurrengo esaldia aipatzen du: “Nik maite zaitut. Niri bost axola dit neska, mutila edota izokina zaren.” (Fernandez, 2018, 42 or.) pertsonak diren moduan maite behar ditugula bermatzen duena.

Ikerlan honek eskolan izan dezakeen baliagarritasuna dela eta, beste lan askoren hasiera izan daitekeela aipatu beharra dago; izan ere, adierazitako azken bi ideiekin lotuta, beste batzuen artean, lana osa dezaketen bi ikerketa ezberdin burutzerara eraman gaitzake. Alde batetik, maitasun eredu ezberdinei buruz idazten duten emakumeen eta gizonen arteko pertsona kopuruari deritzogunean, interesgarria izango litzateke lan honetan ateratako ondorio hau baieztatzeko xedearekin, lagin zabalagoa duen azterketa bat aurrera eramatea. Bestalde, proposatutako bost narrazioek eskolak emateko izango duten erabilgarritasuna kontuan hartuz, ikasleentzat ahalik eta onuragarrien izan daitezen, liburu hauek nola landu ahal diren aztertzea lan hau aberasgarriagoa egiteko baliagarria izango delakoan nago.

5. Erreferentzia bibliografikoak

5.1. Erreferentzia teorikoak

Bisquert, M., Giménez, C., Gil B., Martínez, N., eta Gil, M. D. (2019). Mitos del amor romántico y autoestima en adolescentes. *International Journal of Developmental and Educational Psychology. Revista INFAD de Psicología*, 5(1), 507. <https://doi.org/10.17060/ijodaep.2019.n1.v5.1633>

Carbonell Marqués, Á., eta Mestre, M. V. (2019). Sexismo, amor romántico y desigualdad de género. Un estudio en adolescentes latinoamericanos residentes en España. *América Latina Hoy*, (83), 59-74. <https://doi.org/10.14201/alh2019835974>

- Colás, P. eta Villaciervos, P. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista de Investigación Educativa*, 5 (1), 35-58.
- Corona, H. F., eta Funes, D. F. (2015). Abordaje de la sexualidad en la adolescencia. *Revista Médica Clínica Las Condes*, 26(1), 74-80. <https://doi.org/10.1016/j.rmclc.2014.12.004>
- European Union Agency for Fundamental Rights. (2014) *European Union Lesbian, Gay, Bisexual and Transgender Survey: Results at a glance*. Publications Office. <https://data.europa.eu/doi/10.2811/37741>
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. (2015). *Diagnóstico de Igualdad*. <http://alboan.efaber.net/ebooks/0000/1393/12-MUN-DIA.pdf>
- Espada, J.P, Morales, A., Orgilés, M. eta Ballester, R. (2012). Autoconcepto, ansiedad social y sintomatología depresiva en adolescentes españoles según su orientación sexual. *Ansiedad y Estrés*, 18 (1), 31-41. <http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/66935/53119.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Esteban, M. L. (2011). *Crítica del pensamiento amoroso: Temas contemporáneos*. Bellaterra. https://www.feministas.org/IMG/pdf/mari_luz_esteban_-_critica_del_pensamiento_amoroso.pdf
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta gazte literatura: Kontzeptuaren definizio baten bila*. Pamiela.
- Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Utriusque Vasconiae.
- Fernandez, I. (2016). *NERABEZAROKO MAITASUN BIZIPENEN ETNOGRAFIA: Harremanen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua Bilboko gaztetxoan artean*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea. Hemen eskuragarri: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18955/TESIS_FERNANDEZ_RODRIGUEZ_IRANTZU.pdf?sequence=1
- Ferrer, V.A., Bosch, E. eta Navarro, C. (2010). *Los mitos románticos en España*. *Boletín de psicología*, (99), 7-31.

- Ferrer, V. eta Bosch, E. (2013). Del amor romántico a la violencia de género. Para una coeducación emocional en la agenda educativa. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 17(1),105-122.
- Frasquier, J.M., Baixauli, R., González, E., Fernández, M.P., Alonso, B., Aranguren, E., Abad, D., Martín, D., Salazar-Argulló, M., Martínez-Marco, E., Pérez, T., Blanco, J., Barrera, M., de la Vega, M., Maguilla, J., Pantoja, C.P., Castillo, M.P., Martínez-Gómez, N., ... Cuellar, P. (2019). MITOS DEL AMOR ROMÁNTICO: ROMPIENDO EL MARCO DE LA HETERONORMATIVIDAD. In J. Sanfélix eta R. Carmona (Coord.), *I CONGRESO INTERNACIONAL SOBRE MASCULINIDADES E IGUALDAD. En busca de buenas prácticas de masculinidades igualitarias desde el ámbito de la universidad* 167-175. UNIVERSITAS Miguel Hernández. http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/190391/Mitos_Congreso%20Masculinidades_2019.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Igerabide, J.K. (2001). Euskal Haur eta Gazte Literatura: atlas sentimental. *Behinola: Haur eta gazte literatura aldizkaria*, 10-13. <https://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/043.pdf>
- Lérida, A. (2017). El machismo y la heteronormatividad en la traducción al español de la Literatura Infantil y Juvenil (LIJ). In E.Cutillas (Coord.) *Convergencia y transversalidad en humanidades, Actas de las VII Jornadas de Investigación de la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Alicante*, (103-108) Universidad d'Alacant. [El machismo y la heteronormatividad en la traducción al español de la literatura infantil y juvenil \(LIJ\)](#)
- Marroquí, M. eta Cervera, P. (2014). Interiorización de los mitos del amor romántico en jóvenes. *ReiDoCrea*, 3, 142-146. <https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/32269/ReiDoCrea-Vol.3-Art.20-Marroqui-Cervera.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Martxueta, A. eta Etxeberria, E. (2014). Análisis diferencial retrospectivo de las variables de salud mental en lesbianas, gais y bisexuales (LGB) víctimas de bullying homofóbico en la escuela. *Revista de Psicopatología y Psicología*

- Clínica*, 19 (1), 23-35. https://www.aepp.net/wp-content/uploads/2020/05/03_2014_n1_martxueta_etxeberria.pdf
- Martínez, N., Giménez, C., Enrique, J. Elipe, M. eta Ballester, R. (2019). Discriminación LGTBI en las aulas. *INFAD Revista de Psicología*, (1), 367-376. https://dehesa.unex.es/bitstream/10662/12197/1/0214-9877_4_1_367.pdf
- Milner, K. (2019). Moio. *Gordetzea ezinezkoa zen*. Elkar.
- Pérez, R., Gutiérrez, A., Soto, J. Jaraíz, F.J. eta Gutiérrez, J.A. (2018). Géneros de lectura preferidos por los alumnos extremeños. Datos y análisis. *Información, cultura y sociedad: revista del Instituto de Investigaciones Bibliotecológicas*, (39), 71-92.
- Platero, R. (2007). ¡¡Maricón el último!! docentes que actuamos ante el acoso escolar. *ICEV. Revista d'Estudis de la Violencia*, (3), 1-14. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2430721>
- Quintana, N. (2020ko maiatzak 2). *Acoso LGTBI+, bullying homofóbico y transfóbico en la escuela* [Sarrera blog batean]. <https://infoacoso.es/bullying-homofobico-y-transfobico-en-la-escuela-acoso-lgtbi/>
- Ros, E. (2013). El cuento infantil como herramienta socializadora de género. Cuestiones Pedagógicas. *Revista de Ciencias de la Educación*, (22), 329-350. http://institucional.us.es/revistas/cuestiones/22/art_15.pdf
- Ruiz, R. (2016). Los mitos del amor romántico: S.O.S celos!!!. *Depósito de Investigación Universidad de Sevilla*, 625-636. <https://core.ac.uk/download/pdf/132457223.pdf>
- Tesouro, M., Palomanes, M.L., Bonachera, F. eta Martínez, L. (2013). Estudio sobre el desarrollo de la identidad en la adolescencia. *Tendencias Pedagógicas*, (21), 211-224. <https://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/9785/EstudioDesarrollo.pdf;sequence=3>
- United Nations International Children's Emergency Fund (2020). *¿Qué es la adolescencia?*. <https://www.unicef.org/uruguay/que-es-la-adolescencia>

Verdú, A.D. (2013). Género y conflicto en las relaciones de pareja heterosexuales: La desigualdad emocional. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, (8), 165-181. <https://doi.org/10.18002/cg.v0i8.884>

Zacarés, J.J., Iborra, A., Tomás, J.M. eta Serra, E. (2009). El desarrollo de la identidad en la adolescencia y adultez emergente: Una comparación de la identidad global frente a la identidad en dominios específicos. *Anales de psicología*, 25 (2), 316-329. <https://revistas.um.es/analesps/article/view/87931>

5.2. Erreferentzia literarioak

Aguirre, A. (2017). *Maren*. Erein.

Arana, A. (2013). *Maitasun sua*. Ekin.

Cathrin, A. (2008). *Ez gara elkarrekin zahartuko*. Elkar.

Fernandez, O. (2018). *Sekretuen hamaika zaporeak*. Ibaizabal.

Iturralde, J.M. (1997). *Lehenengo amodioa Suedian*. Ibaizabal.

Kazabon, A. (2007). *Atearen atzean*. Elkar.

Morillo, F. (2003). *Eta ni zer?*. Elkar.

Morillo, F. (2013). *Hiru istripu eta bi amodio*. S-zu gazte.

Osoro, J. (2005). *Jara, bikiak eta bikoteak*. ALFAGUARA Zubia.

Osoro, J. (2012). *Ezekiel nora ezean*. Elkar.

Osoro, J. (2019). *Eiderren egunerokoa*. Alai.

Santiesteban, K. (2003). *Oporren zirrara*. DESCLÉE DE BROWER.

Santiesteban, K. (2006). *Udalekua, hura lekua!*. DESCLÉE DE BROWER.

Urkixo, J. (2006). *Bihotz ausarta*. ALFAGUARA Zubia.

Valverde, M. (2010). *Ritak nobioa du*. Elkar.